

MINECO 2017 DEIALDIA

BIKAINASUNEZKO IKERKETA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKO SUSTATZEKO ESTATU PROGRAMA

Dinamizazio ekintzak. "Bikaintasun Sareak"

OHAR GARRANTZITSUA: Jarraian zehazten diren epeak eskaera formala aurkezteko datari egiten diote erreferentzia. Hauek nahitaez Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko da. Hala ere, beste **barneko epeak**, funtsezkoak direnak, kontuan hartu behar dira. Hala egin ezean, Ikerketaren arloko errektoreordeak eskaera sinatu ezin izateko arrisku handia egon daiteke; izan ere, Ministerioko sinatzeko aplikazio informatikoa kolapsatu egiten da azken bi egunetan.

ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA: 2017ko urriaren 10etik 25eko 15:00ak arte.

ESKAERA FORMULARIOA (14 eta 15. art.)

Eskaera egiteko formulario elektronikoak, proiektuaren, erakunde eskatzailearen eta ikerketa taldeko kideen eta lantaldeko doktoreen identifikazio datuez gain, honako informazioa eta dokumentazioa bildu beharko ditu:

- Sarea ebaluatzeko hautatutako kudeaketa arlo tematikoaren eta, hala balegokio, azpi-arloaren identifikazioa.
 - Sarearen eta koordinatzailearen curriculumaren laburpena, gaztelaniaz eta ingelesez.
- Eskaera egiteko orri elektronikoarekin batera ikertzaile nagusiak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu nahitaez, berori gutxieneko edukitzat hartuta, **zuzendu ezinekoa (15 eta 16.1 azken art.)**
- Sarearen memoria zientifiko teknikoak, MINECOren web gunean agertzen den eredia erabilia, adierazitako edukia, luzapena eta formatua errespetatuz.
 - Ingelesez edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.
 - Times New Roman edo Arial letra, gutxienez 11 puntutakoa.
 - 2,5 cm-tako albo marjinak.
 - 1,5 cm-tako goi eta behe marjinak.
 - Gutxieneko tarte sinpleak.
 - Gutxienez 10 orrialde C atalean ("Dokumentu zientifiko").
 - Sare koordinatzailearen curriculum laburra (CVL), Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren web orrialdean eskuragarri dagoen ereduaren arabera:
 - Ingelesez edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.
 - Times New Roman edo Arial letra, gutxienez 11 puntutakoa.

**Eskaera
formulario
elektronikoa
(14 eta 15 art.)**

	<ul style="list-style-type: none"> - 2,5 cm-tako albo marjinak. - 1,5 cm-tako goi eta behe marjinak. - Gutxieneko tarte sinpleak. - Gehienez, 4 orri.
<p>Dokumentazio osagarria (15 art.)</p>	<p>Kasu guztietan, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu sare koordinatzaileak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sareko taldekideen curriculum laburra, webgunean eskura daitekeen ereduarekin bat etorrira eta adierazitako formatua errespetatuz: <ul style="list-style-type: none"> - Ingelesean edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da. - Times New Roman edo Arial letra, gutxienez 11 puntutakoa. - 2,5 cm-tako albo marjinak. - 1,5 cm-tako goi eta behe marjinak. - Gutxieneko tarte sinpleak. - Gehienez, 4 orri. • Koordinatzailea eskatzailearen erakundeaz bestekoa bada, berari lotu zaion erakundeak emandako baimena, webgunean den eredia erabilita. • Behar izanez gero, 10.5.d artikuluan aipatzen duen hautatze prozedura publikoa gainditua duelako ziurtagiria. • Gainera, ICTS sareetan: Akdordia edo adierazpena, ICTS sareko partaideen azpiegituren gestoreen edo erakunde titularren legezko ordezkariak sinatutakoa. Bertan jasota egon behar dira, gutxienez, sarearen osaera, gestio edo koordinazio organoak, helburuak eta hauek betetzeko elkarlanean aritzeko konpromisoa. • Gainera, sare estrategikoetan: I+G+B itunen kasuetan, "Asmoen adierazpena", Ituna sortzerakoan partaide guztiek sinatutakoa.

ESKAERAK AURKEZTEA

1. IKERKETA TALDEEK ETA PROIEKTUEN LANTALDEEK BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA EGIAZTATZEA

Egiaztapen hau nahitaezkoa da ikertzaile nagusiek, ikerketa taldeetako kideek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

Beraz, Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura lortzeko, ikertzaile nagusiak I. eranskina bete eta lqz.deialdiak@ehu.eus zein bere ikastegiari dagokion helbide elektronikora igorri beharko du **2017ko urriaren 13a baino lehen**.

Barne tramite hau egingo da baldin eta koordinatzailea UPV/EHUrekiko lotua bada eta unibertsitatea laguntzaren onuradun gisa agertuz gero, ez bestela.

2. ESKAERAK FORMALKI AURKEZTEA IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZAKO ESTATU IDAZKARITZAREN WEB ORRIAN

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira, eskaeraren eta sinadura elektronikoen bitartez (Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatu Idazkaritzaren egoitza elektronikoa eskura

daitezke):

Eskaera bete eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak adierazitako aldaketak zehaztu ondoren, baliozkotu eta telematikoki bidali behar da.

Jarraian, aplikazioak automatikoki sortzen duen dokumentua inprimatu beharko da, sare koordinatzailearen eta ikerketa taldeko kideen sinadura orijinalak bertan jasotzeko; gero, **barne postaz bidaliko da** Ikerketaren arloko Errektoreordetzara, **adierazitako dokumentazioarekin batera**. Dokumentazio hori bera **e-mailez ere** igorri behar da, pdf formatuan, dagokion helbide elektronikora. **Gainera, barne postaren bidez ere bidaliko da** Ikerketaren arloko Errektoreordetzara, aipatutako dokumentazioaren batera.

Hortaz, 2017ko urriaren 23KO 8.00ak arte, bidali ahal izango da Ikerketaren arloko Errektoreordetzara ondorengo zehazten den dokumentazioa:

- **Eskaera** sinatuta.
- **Memoria zientifiko teknikoa**, MINECOaren web orrialdean eskuragarri dagoen ereduaren arabera, adierazitako edukia, luzera eta formatua erabiliz.
- **Memoria zientifiko teknikoa**, MINECOaren web orrialdean eskuragarri dagoen ereduaren arabera, adierazitako edukia, luzera eta formatua erabiliz.

Dokumentazio originala, eskaneatuta, barneko posta bidez bidaliko da helbide honetara (ez erregistroaren bitartez):

Ikerketaren arloko Errektoreordetza
Deialdi atala
Errektoregoa - Leioako Campusa
Sarriena auzoa, z/g
Leioa 48940

UPV/EHUTik KANPOKO ERAKUNDEAK BURU DITUZTEN ESKAERETAN PARTE HARTZEKO BAIMENAK

Deialdiaren 11.3 artikuluan aipatu bezala, onuradun erakundetik kanpoko erakundeetakoak diren sareko taldekideek baimen espresa beharko dute, zein bere erakundeak emana. UPV/EHUko ikertzaileek baimena eskatu ahal izango dute formulario hau bete, sinatu eta, **2017ko urriaren 20a baino lehen (hau ere barne)** Igz.deialdiak@ehu.eus helbidera igorritik gero. PDF formatuan eta jatorrizkoa igorriko dio ikertzaileari barne postaren bidez.

UPV/EHUK banakako baimena emango dio ikertzaile bakoitzari. Ikertzaileen ardura izango da dokumentazio hori laguntza eskatzen duen erakundera helaraztea, bertan artxiba dadin.

INFORMAZIO GEHIAGO

Hauek dira eskaera betetzeko behar diren UPV/EHUREN datuak:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta kodea:** 48940
- **Hiria:** Leioa
- **Ordezkarri legala:** José Luis Martín González
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea